



HOBETU AHAL DAITEKE AGUREEN EGOERA BOTIKARIK GABE?

Iraia Ongay, Aiora Dorai, Ibon Salaverri eta Iera Garbisu

SARRERA

Bigarren Batxilergoko ikasleak gara eta Biurdanatik gertu dagoen Amavir agure-egoitzan egon gara, gazteekin egoten diren heinean agureen egoera aztertzeko. Proiektu hau belaunaldien arteko harremanen eta hartu-emanaren garrantzia azpimarratzeko egin dugu, geroz eta gehiago urruntzen gaituen gizarte batean. Horrela, 4 hilabetez gurekin jarduerak egin ondoren agureen ongizate kognitibo eta emozionala neurtu dugu.

HELBURUAK

- Adineko pertsonen gaitasun kognitiboak eta egoera emozionala hobetzeko ekintzak egitean eta elkarrekin denbora pasatzean izango dituzten onurak aurkitzea.
- Adinekoen ongizate emozionalaren hobekuntza sustatzea, gazteekin harreman sozialak izateak agureen osasun emozionala ea hobetuko duen aurkituz.
- Belaunaldien arteko harremanak adineko pertsonen kognizioan duen eragina aurkitzea.
- Sentitu dezaketen bakardadearekin laguntzea eta haien autoestimua eta motibazioa handitzea.

METODOLOGIA

8 nagusik hartu dute parte (4 esperimentazio-taldean eta 4 kontrol-taldean). Hortaz, proiektuak izaera konparatiboa du, non esperimentazio-taldeak gurekin ekintza gehigarriak egiten dituen, kontrol-taldeak soilik egoitzan ezarrita dauden ekintzak egiten dituen bitartean. Horrela, 4 hilabetez astero 2-3 egunez ekintzak egin genituen, hala nola tertuliak, jokoak, marraztea, gutunak bidaltzea...

Neurtzerako orduan, Yesavage Geriatriako Depresio Eskalan, MMSE/MEC, Pfeiffer... oinarritutako testak eta galdetegiak egin dizkiegu bi taldeei, jardueren aurretik eta ondoren. Honetaz gain, proiektuaren zer nolako iritzia duten galdetu diegu bai agureei bai egoitzako terapeutari.



EMAITZAK

Balio klinikoaz gain, fruitu desberdinak izan ditu proiektuak. Esperimentazio-taldeko kideen artean harreman estua sortzeaz gainera, gurekiko ikuspuntua asko aldatu dute, eta poztasunez hitz egin dute proiektu honetaz beste agureekin.

Grafikoetan talde bakoitzeko 3 agureekin egin dugu estatistika, gaixorik egoteagatik falta ziren-eta talde bakoitzeko kide bana. Honakoak dira lortu ditugun esaldi eta iritziak:

“Me gusta mucho estar con vosotros porque me olvido de que me quiero morir”
-FELISA, 94 URTE-


“Nos llenáis de alegría”
-CELISO, 78 URTE-

“Nos hacéis recordar los viejos tiempos”
-GUILLERMO, 83 URTE-


“Os hemos echado de menos”
-GUZTIEK, 10 EGUN GU IKUSI GABE EGON ONDOREN-

“Ha sido increíble la conexión que han tenido con los residentes. Desde la etapa inicial de curiosidad, ha ido evolucionando a una relación de implicación y compromiso por parte de los ancianos. Han conseguido que se sientan valorados, queridos y esenciales en el proyecto. Cada visita o taller ha sido un soplo de aire para ellos, que esperaban ese momento con ilusión. La despedida no pudo ser más emotiva, os habéis ganado su cariño”
-MAITANE IRIARTE, AMAVIR EGOITZAKO TERAPEUTA OKUPAZIONALA-


Depresioa




Arreta (bukatze beharrezko denbora)




Memoria



Gnosia (bukatze beharrezko denbora)



Depresio



ONDORIOAK

Belaunaldien arteko jarduera eta hartu-emanek nagusien ongizate emozionala hobetzen dute. Proiektuaren lagina txikia izan arren, etorkizunean ikerketa handiagoak egitea gomendatzen dugu Balio estatistikoa izateko lagin handiagoa behar den arren, balio kliniko handia dauka. Gaitasun kognitibotan ere hobekuntzak daude, nahiz eta hain garbiak ez izan.

ESKERRAK

Eskerrik asko parte-hartzaileei, Amavir egoitzako terapeutei, bereziki Maitaneri, eta Nafarroko Unibertsitatearen Ospitaleko Geriatria Zerbitzuari, berziki Fabrizio Zambom Ferreraeseri (Navarrabiomed).